elgoibar
UDAL ALDIZKARIA • REVISTA MUNICIPAL

//
Iraila
*Septiembre*
2025

# ERREZABAL EGOITZAREN OBRAK, ABIAN

## LEGEALDIAREN ERDIA BETETA: ERRITMO ONEAN, NORABIDE ARGIAN.




## *Maialen Gurrutxaga:*

"Con unas bases ya asentadas, es momento de seguir avanzando. Ahora nos toca continuar por este camino, junto a la ciudadanía, escuchando, compartiendo y construyendo entre todas y todos un Elgoibar mejor".

ELGOIBAR
UDALA | AYUNTAMIENTO

# Legealdiaren erdia beteta: erritmo onean, norabide argian



Bi urte igaro dira Maialen Gurrutxaga alkatea buru duen Udal Gobernu berriak Elgoibarko Udalaren gidaritza hartu zuenetik. Legegintzaldiaren erdia beteta, ilusioz eta konpromisoz hasitako ibilbideari eusten diogu, herritarren ongizatea eta Elgoibarren etorkizuna ardatz hartuta.

Gobernuaren lehen urtean Legegintzaldi Plana aurkeztu genuen, gure norabidea markatzen duten 6 ildo estrategiko, 28 helburu eta 91 ekintza zehatz jasotzen dituena. Hauteskunde-programatik abiatuta, baina herritarren, elkarteen eta gizarte-mugimenduen ekarpenekin osatua. Gaur egun, legealdiaren erdian gaudela, lanaren eta konpromisoaren fruituak ikusgarriak dira.

### Elgoibar irisgarriago eta konektatuago bat eraikitzen

Mugikortasuna eta irisgarritasuna ardatz, hainbat egitasmo gauzatu dira: Artekaleko eta Urazandiko igogailu berriak martxan daude, baita Urazandiko zubiaren lehen fasea ere, bigarrena bide onean.

### Auzoak eta espazio publikoak biziberrituz

Birgaitzean urrats nabarmenak eman dira: Eulogio Estarta auzoko eraberritze lanak martxan dira. Urruzuno parkea eta gune berdeen sorrera ere sustatu dugu.

### Landa eremua zainduz eta indartuz

Landa auzoetan ere lanean dihardugu: bideak urtero egokitzen ari gara, postontzi berriak jarri eta Aitzbizkar bidean argiteria berritu da. Nekazaritza-jarduerak indartzeko azokak antolatu dira, bertako produktuak sustatzeko kanpainak egin, eta Debemenen lokal berria inauguratu da.

### Gizarte zerbitzu sendo eta integratzaileagoak

Gizarte-zerbitzuen sare propioa indartzen ari gara: Errezabal egoitzako lanak hasi dira, eta Santa Klara komentua erabilera sozialerako egokitzeko proiektua beste erakundeekin batera lantzen ari gara. Etxez etxeko zerbitzua inoiz baino indartsuago dago eta pertsona gehiagorengana iritsi da.

### Merkataritza eta jarduera ekonomikoa sustpertzen

Merkataritza biziberritzeko hainbat ekintza jarri dira martxan: negozio berriak sustatzeko laguntzak indartu dira, bonu-kanpainak egin eta herrian negozio berriak ireki dira.

### Industriaren alorrean,

Arriaga industrialdeko urbanizazioa amaitu da, eta enpresekin elkarlana sustatu dugu.

### Berdintasuna eta zaintza erdigunean

Berdintasun-politiketan urrats sendoak eman dira: V. Berdintasun Plana eta udal barneko plana onartu dira, Lila Mahaiak sendotu dira eta bertan aholkularitza zerbitzuak eskaintzen dira. Indarkeria matxistaren aurkako protokoloa berritu da ere.

### Euskara eta kultura biziberrituta

Elgoibarren euskara biziberritzeko bide sendoa jorratzen ari gara: "Batera Elgoibarren" prozesua gidatu dugu, V. Plan Estrategikoa eta VII. Udal Erabilera Plana martxan dira, eta azterketa soziolinguistikoa ere burutzen ari gara. Kultura alorrean, azken urteotan inoiz baino jarduera gehiago izan dugu.

### Gazteria eta hezkuntza, etorkizunerako inbertsioa

Gurasotasun positiboa lantzeko Treba saioak egin dira, eta Hezkuntza Mahaia sendotu da. Nerabe eta gazteen ongizate emozionala lantzeko "Zurrunbiloa" proiektua babestu dugu. Aisialdi inklusiboa bultzatu da, eta euskara zein kulturartekotasuna uztartzen dituzten programak ere abian jarri dira. Kilometroak ekimenari zuzeneko laguntza eman diogu.

### Kirola, denon eskura eta denontzat

Dagoeneko kirol instalazioetan "Nik Patrika" aplikazioa erabiltzea posible da eta "Nahi Dozunian" aukera ere martxan dago.



Emakumeen kirola bultzatu dugu eta kirol eskaintza berria sortu dugu.

### Herritarrengandik gertu, komunikazio ireki eta parte-hartzailea

Udaleko komunikazio ardura-postua sortu da eta kanal berriak zabaldu dira, besteak beste Línea Verde aplikazioa. "Auzoekin batera" ekimenak hurbiltasuna indartu du, eta herriko elkarteekin harreman zuzena mantentzen dugu. .

### Ingurumenarekiko konpromisoa eta eguneroko arreta

Urruzunoko parke berria, herritarren baratzeak eta txakurrentzako gunea sortu dira. Eguneroko garbiketa eta mantentze lanak indartu dira, eta hainbat instalazioen garbiketa berezia egin da. Energia berriztagarrien aldeko Ekiola proiektua gizarteratzeko prest dago.

Legealdiaren lehen erdian lan asko egin dugu eta oinarri sendoak ezarri ditugu. Orain, bide beretik jarraitzea dagokigu, herritarrekin batera, entzunez, partekatuz eta herri hobe bat eraikiz.
Aurrera Elgoibar, bizi, maitatu eta egin!









## CUMPLIDA LA MITAD DE LA LEGISLATURA: A BUEN RITMO, EN UNA DIRECCIÓN CLARA

Han pasado dos años desde que el nuevo Gobierno Municipal presidido por la alcaldesa Maialen Gurrutxaga asumiera las riendas del Ayuntamiento de Elgoibar. Cumplida la mitad de la legislatura, mantenemos un recorrido iniciado con ilusión y compromiso, centrado en el bienestar de la ciudadanía y el futuro de Elgoibar.

En el primer año de Gobierno presentamos el Plan de Legislatura, que recoge 6 líneas estratégicas, 28 objetivos y 91 acciones concretas que marcan nuestro rumbo. A partir del programa electoral, pero complementado con aportaciones ciudadanas, asociativas y de movimientos sociales. Hoy, a mitad de legislatura, los frutos del trabajo y del compromiso son espectaculares.

### Construyendo un Elgoibar más accesible y conectado

En cuanto a movilidad y accesibilidad, se han llevado a cabo varios proyectos: están en marcha los nuevos ascensores de Artekale y Urazandi, así como la primera fase del puente de Urazandi, la segunda en buen camino.

### Revitalizando barrios y espacios públicos

En la rehabilitación se han dado pasos notables: las obras de reforma del barrio de Eulogio Estarta ya están en marcha. También hemos promovido el parque de Urruzuno y la creación de zonas verdes.
Preservando y potenciando el medio rural
También se está trabajando en los barrios rurales: se están acondicionando los caminos cada año, se han instalado nuevos buzones y se ha renovado el alumbrado en Aitzbizkar bidea. Se han organizado ferias para potenciar las actividades agrícolas, se han llevado a cabo campañas de promoción de los productos locales, y se ha inaugurado el nuevo local de Debemen.

### Servicios sociales más sólidos e integradores

Estamos reforzando la red propia de servicios sociales: han comenzado las obras de la residencia Errezabal, y el proyecto de adecuación del convento de Santa Clara para su uso social lo estamos desarrollando en colaboración con otras instituciones. El servicio a domicilio está más fuerte que nunca y ha llegado a más personas.

### Reactivando el comercio y la actividad económica

Se han puesto en marcha diversas acciones para revitalizar el comercio: se han reforzado las ayudas para la promoción de nuevos negocios, se han realizado campañas de bonos y se han abierto nuevos negocios en la localidad.

### En el ámbito industrial

se ha finalizado la urbanización del polígono Arriaga y se ha impulsado la colaboración con las empresas.

### Igualdad y cuidados

Se han dado pasos firmes en las políticas de igualdad: se han aprobado el V Plan de Igualdad y el plan interno municipal, se han consolidado las Mesas Lila y se ofrecen servicios de asesoramiento. También se ha renovado el protocolo contra la violencia machista.

### Revitalizado el euskera y la cultura

Estamos abordando un camino firme para la revitalización del euskera en Elgoibar: hemos liderado el proceso "Batera Elgoibarren", el V Plan Estratégico y el VII Plan Estratégico. El Plan de Uso Municipal está en marcha y se está llevando a cabo un estudio sociolingüístico. En el ámbito cultural, en los últimos años hemos tenido más actividades que nunca.

### Juventud y educación, inversión para el futuro

Se han realizado sesiones de Treba para trabajar la parentalidad positiva y se ha consolidado la Mesa de Educación. Hemos apoyado el proyecto "Zurrunbiloa" para trabajar el bienestar emocional de adolescentes y jóvenes. Se ha impulsado el ocio inclusivo y se han puesto en marcha programas que combinan el euskera y la interculturalidad. Hemos dado apoyo directo a la iniciativa Kilometroak.

### El deporte, al alcance de todos y para todos

Ya es posible utilizar la aplicación "Nik Patrika" en las instalaciones deportivas y también está en marcha la opción "Nahi Dozunian". Hemos impulsado el deporte femenino y creado una nueva oferta deportiva. La mejora de las instalaciones deportivas es continua.

### Comunicación abierta y participativa cerca de la ciudadanía

Se ha creado el puesto de responsabilidad de comunicación del Ayuntamiento y se han abierto nuevos canales, entre ellos la aplicación Línea Verde. La iniciativa "Junto a los barrios" ha reforzado la cercanía, y mantenemos un contacto directo con las asociaciones del pueblo.

### Compromiso con el medio ambiente y atención diaria

Se ha creado el nuevo parque de Urruzuno, las huertas ciudadanas y la zona para perros. Se ha reforzado la limpieza y mantenimiento diario y se ha realizado una limpieza especial de diferentes instalaciones. El proyecto Ekiola por las energías renovables está preparado para su socialización.
En la primera mitad de la legislatura hemos trabajado mucho y hemos establecido unas bases sólidas. Ahora nos toca seguir por el mismo camino, junto con la ciudadanía, escuchando, compartiendo y construyendo un Elgoibar mejor.



# Maialen Gurrutxaga *Alkatea*

> Elgoibar inklusiboagoa eta jasangarriagoa dugu helburu: auzoak biziberritzea, gazteentzako aukerak, trantsizio energetikoa bultzatzea eta zaintza eredua hobetzen jarraitzea.

**Maialen, zer balorazio egiten duzu legealdiaren lehen erdi honetaz?**

Legealdiaren lehen erdia aberatsa eta bizia izan da. Erronka handiei aurre egin behar izan diegu, baina lan talde sendoa eta herritarren konfiantza izateak bidea erraztu digu. Etengabeko hobekuntzaren bidean gaude, eta pozik nago herriaren aldeko proiektuak aurrera doazelako.

***La construcción de Errezabal Zentroa está en marcha. ¿Qué importancia tiene este proyecto para Elgoibar?***

Errezabal será un espacio de referencia para el envejecimiento activo y los cuidados y colocará a Elgoibar en la comarca como referente en en cuidados. Supone dar respuesta a las necesidades reales y actuales de las personas mayores, poniendo siempre en el centro su bienestar y autonomía y teniendo en cuenta un nuevo modelo de residencia. Se tratá de un proyecto estratégico para tener una red propia de servicios sociales.

**Anbulategi berria 2026aren hasieran hasiko dira eraikitzen. Zer hobekuntza ekarriko dizkio udalerriko osasun-arretari?**

Osasun arreta hobetzea premiazkoa da, eta anbulategi berriak horretan lagunduko du. Espazio zabalagoak eta ekipamendu egokiagoak izango ditu, eta hori guztia elgoibartarren arreta duinagoa eta gertukoagoa izateko bidean doa.

***Has destacado que los servicios sociales son un pilar fundamental. ¿Qué iniciativas o mejoras se han impulsado en este ámbito?***

Hemos reforzado la atención a las personas en situación de vulnerabilidad, con nuevos programas de acompañamiento y mejora en la gestión de ayudas. Hemos mejorado el servicio de ' casa a casa', se han ampliado los servicios dirigidos a personas mayores, menores y familias, trabajando siempre desde la cercanía. Además, hemos intentado concienciar a la ciudadanía con campañas para mejorar la calidad de vida de los ciudadanos.

**Batera Elgoibarren programak euskararen erabilera sustatu nahi du datozen urteetan. Zein helburu zehatz ezarri dira?**

Helburu nagusia da elgoibartar gehiagok euskara erabili eta goza dezaten eguneroko bizitzako eremu guztietan. Horretarako, talde bilerak egin dira, euskararen egoera aztertu da herrian eta hemendik hamar urtera euskera Elgoibarren nola aurreikusten dugun aztertu dugu. Itun bat adostu da Euskeraren inguruan dagoen erronkari aurre egiteko.

***En breve finalizará la segunda fase de las obras del puente de Urazandi. ¿Qué beneficios aportará a la movilidad en Elgoibar?***

El nuevo puente facilitará una conexión más directa del barrio de Urazandi al centro del pueblo. Además, la obra modernizará esa zona del pueblo y facilitará la movilidad de las personas mayores. En definitiva, es una apuesta por una movilidad más sostenible y accesible.

> Estamos avanzando hacia la mejora continua, y me siento satisfecha de ver que los proyectos en beneficio del municipio siguen adelante.

**Artekale abian da. Zeintzuk dira etorkizuneko erronka nagusiak irisgarritasunaren arloan?**

Gure helburua da Elgoibar herri irisgarriagoa bihurtzea. Artekaleko lanak hori kontuan hartuta egindako lanak izan dira, baina oraindik badaude lanak auzoetan, eraikin publikoetan eta espazio irekietan. Hauek definitzeko, Irisgarritasun Plana jarri dugu martxan. Teknologia berriak eta herritarren iritzia kontuan hartuta egingo dugu aurrera.

***El proyecto Ekiola ha abierto su fase de adhesión. ¿Cómo valoras la respuesta ciudadana y qué expectativas hay para su desarrollo?***

La acogida está siendo muy positiva, lo que demuestra el interés de la ciudadanía por un modelo energético más justo y sostenible. Ekiola representa una oportunidad para Elgoibar, con energía limpia y renovable siendo un modelo innovador para el pueblo. Apostamos por la energía limpia y seguiremos impulsando proyectos de este tipo.

**Etorkizunari begira, zein erronka jotzen ditu lehentasunezkotzat gobernu taldeak datozen bi urteetarako?**

Herri inklusiboagoa eta jasangarriagoa eraikitzea dugu helburu. Horretarako, auzoen biziberritzea, gazteei aukerak eskaintzea, trantsizio energetikoa bultzatzea eta zaintzaren eredua hobetzea izango dira lehentasunak. Herritarren parte-hartzea eta aliantzak funtsezkoak izango dira bide horretan.

**Azkenik, San Bartolome jaien bezperan gaude. Nola ospatzeko asmoa duzu eta zer mezu helarazi nahiko zenieke herritarrei?**

Pozik eta herritarrekin batera bizitzeko gogoz nago! Sanbartolomeak elkarrekin ospatzeko uneak dira, eta aurten ere aniztasuna, parte-hartzea eta elkarbizitza izango dira ardatz. Herritar guztiei luzatzen diet gonbita: atera kalera, parte hartu eta goza ditzagun jaiak elkarrekin, errespetuz eta alaitasunez.

# Proiektu estrategikoak / Proyectos estratégicos

- GAUZATUA ETA ETENGABEKO HOBEKUNTZA-PROZESUAN / COMPLETADO Y EN MEJORA CONSTANTE
- ABIAN / EN PROCESO
- AURRETIAZKO URRATSAK / PASOS PREVIOS
- HASTEKO / POR COMENZAR

# 01 Herri Bizixa





## Tokiko merkataritza dinamizatzeko lan egitea
Trabajar por dinamizar el pequeño comercio

- **(Gauzatua)** Negozio berrietarako laguntzak sortuko ditugu.
  Crearemos ayudas para impulsar nuevos negocios.
- **(Gauzatua)** Elkarteekin elkarlanean lan egingo dugu saltoki txikiak dinamizatzen jarraitzeko, tokiko kontsumoa eta o-KM sustatuz.
  Trabajaremos con las asociaciones de manera colaborativa para continuar con la dinamización del pequeño comercio, fomentando el consumo local y KM-0.
- **(Aurretiazko urratsak)** Saltoki txikiak digitalizatzen eta modernizatzen lagunduko dugu.
  Ayudaremos a digitalizar y modernizar el pequeño comercio.
- **(Hasteko)** Ostalaritzaren eta merkataritzaren sektoreko prestakuntza erraztuko dugu.
  Facilitaremos la formación en el sector de hostelería y comercio.
- **(Abian)** Merkatari elkartearekin eta ostalaritza elkartearekin aktiboki lanean jarraituko dugu.
  Seguiremos trabajando activamente con las asociaciones de comerciantes y de hostelería.
- **(Gauzatua)** "Euskaraz Barra-Barra" marka sustatuko dugu esparru sozioekonomikoan.
  Promocionaremos la marca "Euskaraz Barra-Barra" en el ámbito socioeconómico.

## Kirola aldaketaren tresna gisa erabiltzea
Utilizar el deporte como herramienta del cambio

- **(Gauzatua)** Emakumeen artean kirola egitea eta jarduera fisikoa bultzatzen dituzten jarduerak, ikastaroak, jardunaldiak... sustatuko ditugu.
  Fomentaremos la realización de actividades, cursos, jornadas... que promuevan la práctica del deporte y la actividad física entre las mujeres.
- **(Abian)** Begiraleak eta entrenatzaileak genero-berdintasunean trebatuko ditugu kirolaren bidez.
  Formaremos a las y los monitores y entrenadores en igualdad de género a través del deporte.
- **(Gauzatua)** Mintxetako, Olaizaga Kiroldegiko eta IMHko kirol- ekipamendua hobetuko dugu.
  Mejoraremos el equipamiento deportivo de las instalaciones de Mintxeta, del Polideportivo Olaizaga y del IMH.
- **(Abian)** Klub eta elkarteekin euskararekiko sentsibilizazioa landuko dugu, kirol arloan euskara sustatzeko, batez ere haur eta gazteekin.
  Trabajaremos la sensibilización hacia el euskera con clubes y asociaciones para fomentar el euskera en el ámbito deportivo, especialmente con niñas, niños y jóvenes.













## Industriarekin lankidetzan aritzea ongizatea sortzeko
Colaborar con la industria para generar bienestar.

- **(Abian)** Ikastetxeekin batera, hezkuntzatik lan-mundurako igarobidea indartuko dugu, betiere emakumea ikusaraziz.
  Se está reforzando, junto con los centros, el tránsito desde la educación al mundo laboral, siempre visibilizando a la mujer.
- **(Abian)** Industria-lurzoruaren garapena sendotu eta bultzatuko dugu.
  Consolidaremos e impulsaremos el desarrollo del suelo industrial.





## Boluntariotza sustatze
Fomentar el voluntariado

- **(Gauzatua)** Herritarrekiko eta tokiko eragileekin topaketak sistematizatuko ditugu.
  Sistematizaremos los encuentros con la ciudadanía y los agentes locales.
- **(Gauzatua)** Elkarteen egonkortasun eta iraunkortasunaren alde lan egingo dugu.
  Trabajaremos a favor de las agrupaciones y su estabilidad a lo largo de los próximos años.
- **(Aurretiazko urratsak)** Elgoibarko kirolaren plan bat jarriko dugu abian, kirol eredua aztertu eta datozen urteetarako definitzeko.
  Pondremos en marcha un plan del deporte de Elgoibar para analizar y definir el modelo deportivo para los próximos años.






## Gazteen ekintzailetza eta ahalduntzea bultzatzea
Impulsar el emprendimiento y el empoderamiento juvenil

- **(Gauzatua)** Gazteek sortutako eta zuzendutako ekimenak bultzatu eta finantzatuko ditugu.
  Impulsaremos y financiaremos iniciativas creadas y dirigidas por jóvenes.
- **(Abian)** Haurren, nerabeen eta gazteen parte-hartzea erraztuko dugu, entzute aktibo eta lankidetza-prozesuen bidez.
  Facilitaremos la participación de niñas, niños, adolescentes y jóvenes a través de la escucha activa y procesos colaborativos









## Haur, nerabe eta gazteen parte hartzeko aukera berdintasuna bermatzea
Garantizar la igualdad de oportunidades de participación de niñas, niños, adolescentes y jóvenes

- **(Gauzatua)** Ludotekaren doako zerbitzua bermatuko dugu.
  Garantizaremos un servicio gratuito de la Ludoteca.
- **(Gauzatua)** Aisialdi inklusiboaren alde lan egingo dugu.
  Trabajaremos por una oferta de ocio inclusiva.
- **(Abian)** Hezkuntza mahaia indartzen jarraituko dugu.
  Seguiremos reforzando la mesa de educación.
- **(Abian)** Dibertsitate funtzionala duten pertsonei egokitutako eskaintza bultzatuko dugu.
  Potenciaremos la oferta adaptada a personas con diversidad funcional.



### Gazteek kulturarekiko duten interesa handitzea
Hacer crecer el interés de la juventud hacia la cultura

- "Gazte Tour" Musika eta Arte Eszenikoen Programa jarriko dugu abian Gipuzkoa mailan.
  Pondremos en marcha el Programa de Música y Artes Escénicas "Gazte Tour" a nivel de Gipuzkoa.
- Nerabe eta gazteentzako kultura-eskaintza egokituko dugu.
  Adecuaremos la oferta cultural para adolescentes y jóvenes.

### Gurasotasun positiboa bultzatzea
Impulsar la parentalidad positiva

- Gurasoentzako "TREBA Gurasoak" formakuntzak eskaintzen jarraituko dugu.
  Continuaremos ofreciendo las formaciones "TREBA Gurasoak" para madres y padres.
- "Umeen txokoa" eraikiko dugu 0 eta 5 urte bitarteko haurrentzat.
  Construiremos "Umeen txokoa" para bebes, niños y niñas de entre 0 y 5 años.
- Gurasoekin batera lan egingo dugu gure seme- alabak pantailen erabileran sentsibilizatzeko eta prestakuntza emateko.
  Trabajaremos junto con madres y padres para sensibilizar y formarnos en el uso de las pantallas de nuestras hijas e hijos.









### Gure kultura eta hizkuntzaren aldeko apustua egitea, sustatzea eta bultzatzea
Apostar, promover e impulsar nuestra cultura y nuestro idioma

- Euskal kultura sustatu, indartu eta lehenetsiko duen ekosistema kultural baten aldeko apustua egingo dugu.
  Apostaremos por un ecosistema cultural que promocione, potencie y priorice la cultura euskaldun.
- Euskara planen bidez, orain arte egin ditugun ekintzak indartuko ditugu eta berriak sortuko ditugu euskararen ezagutza eta erabilera sustatzen jarraitzeko, Elgoibar herri are euskaldunagoa izan dadin.
  A través de los planes de euskera, reforzaremos las acciones que hemos realizado hasta ahora y crearemos nuevas para seguir fomentando el conocimiento y uso del euskera, de forma que Elgoibar sea un pueblo aún más euskaldun.
- Guztiok barne hartzen gaituzten jarduerak sustatuko ditugu.
  Promoveremos actividades en la que todos nos sintamos incluidos.
- Gure herrian euskararekin lotutako ondarea jaso eta zabalduko dugu.
  Recogeremos y difundiremos el patrimonio vinculado con el euskera en nuestro pueblo.








- GAUZATUA ETA ETENGABEKO HOBEKUNTZA-PROZESUAN / COMPLETADO Y EN MEJORA CONSTANTE
- ABIAN / EN PROCESO
- AURRETIAZKO URRATSAK / PASOS PREVIOS
- HASTEKO / POR COMENZAR

### Haur, nerabe eta gazteen parte-hartzea erraztea, harremanak areagotuz
Facilitar la participación de niñas, niños, adolescentes y jóvenes, intensificando las relaciones

- Bilerak eta jardunaldiak egingo ditugu haur, nerabe eta gazteekin, haien beharrak identifikatu eta lantzeko.
  Realizaremos reuniones y jornadas periódicas con niñas, niños, adolescentes y jóvenes para identificar sus necesidades.









## 02 Beti gertu, zure ondoan
Siempre cerca, a tu lado

### Gizarte-eragileekin etengabeko komunikazioa bermatzea
Garantizar una comunicación continua con agentes sociales

- Herritarrenganako eta herritarrengandik komunikazioa errazteko sistema bat garatuko dugu.
  Desarrollaremos un sistema para facilitar la comunicación hacia y desde la ciudadanía.
- Egiten diren ekintza guztiak egutegi bateratu batean antolatuko ditugu.
  Organizaremos todas las acciones que se realicen en un calendario conjunto.

### Gobernu onaren ereduan kudeatzea, hurbiltasunetik, lankidetzatik eta gardentasunean oinarrituta
Gestionar bajo un modelo de buen gobierno desde la cercanía, colaboración y transparencia

- Politika publikoak herritarren parte-hartzean oinarrituta.
  Desarrollaremos las políticas públicas desde la participación ciudadana.
- Gobernantza hurbiltasunetik, lankidetzatik eta gardentasunetik landuko dugu.
  Trabajaremos en la gobernanza desde la cercanía, colaboración y transparencia.

### Etengabeko hobekuntza- prozesu baten barruan, Udalak zerbitzuetan eskainitako kalitatean aurrera egingo dugu.
Dentro de un proceso de mejora continua, avanzaremos en la calidad ofrecida en los servicios desde el Ayuntamiento.

- Baliabide publikoak eraginkortasunez eta efizientziaz kudeatuko ditugu.
  Gestionaremos de forma eficaz y eficiente los recursos públicos.
- Herritarren hizkuntza- eskubideak bermatuko ditugu eta Udalarekin euskarazko harremanak sustatuko ditugu.
  Garantizaremos los derechos lingüísticos de la ciudadanía y fomentaremos las relaciones en euskera con el Ayuntamiento.









## Azpiegitura sanitarioak eta soziosanitarioak hobetzea, herritarrengandik hurbil dauden zerbitzu berriak eskainiz
Mejorar las infraestructuras sanitarias y sociosanitarias ofreciendo nuevos servicios cercanos a la ciudadanía

- Elgoibarko Anbulategi berriaren eraikuntza bultzatuko dugu.
  Construcción de un nuevo ambulatorio.
- Kalebarren plaza eraberrituko dugu, bertan estalitako espazio bat sortuz.
  Regeneraremos la Plaza Kalebarren dotándola de un espacio cubierto.
- Errezabal egoitza eraikiko dugu.
  Construiremos la residencia Errezabal.
- Santa Klara komentuaren izaera soziala garatuko dugu.
  Desarrollaremos el carácter social del convento Santa Clara.

GAUZATUA ETA ETENGABEKO HOBEKUNTZA-PROZESUAN
COMPLETADO Y EN MEJORA CONSTANTE

ABIAN
EN PROCESO

AURRETIAZKO URRATSAK
PASOS PREVIOS

HASTEKO
POR COMENZAR



## Belaunaldien arteko proiektuak garatzea
Desarrollar proyectos intergeneracionales

- San Lazaro adinekoentzako etxebizitza bihurtuko dugu Errezabal egoitzaren eraikuntza amaitu ondoren.
  Reconvertiremos San Lázaro en viviendas para personas mayores una vez se termine la construcción de la residencia Errezabal.



# 03 Zainketen gizarterantz, Aurrera eginez
Avanzando hacia una sociedad de los cuidados

## Elgoibar, besoak zabalik hartzen zaituen herria
Elgoibar, un pueblo que acoje con los brazos abiertos

- Harrera Plan Integrala garatuko dugu.
  Desarrollaremos un Plan Integral de Acogida.
- Herriko hizkuntza eta kultura-aniztasuna jaso eta balioan jarriko dugu.
  Recogeremos y pondremos en valor la diversidad lingüística y cultural del pueblo.
- “Auzoko familiak” ekimenari jarraipena emango diogu.
  Daremos continuidad a la iniciativa “Auzoko familiak”.
- Bizikidetzan eta hezkidetzan sakontzea. Udal Mahaia sendotuz eta Herritarren Mahaiko proiektuak sustatuz.
  Profundizaremos en la convivencia y la coeducación. Reforzando la Mesa Municipal y apoyando los proyectos de la Mesa Ciudadana.







## Ongizatean oinarritutako herri osasuntsu bat sustatzea
Promover un pueblo sano y basado en el bienestar

- Adinekoak zaintzeko proiektuak garatzen jarraituko dugu (Zaintzalab, Lagunkoia, Zahartzaro aktiboa).
  Seguiremos desarrollando los proyectos para cuidar de las personas mayores (Zaintzalab, Lagunkoia, Zahartzaro aktiboa).
- Egoera zaurgarrian dauden adinekoentzako zerbitzuak hobetuko ditugu.
  Mejoraremos los servicios para las personas mayores en situación de vulnerabilidad.
- Adikzioak Prebenitzeko Elgoibarko II. Plana garatuko dugu.
  Desarrollaremos el II Plan de prevención de Adicciones de Elgoibar.
- Eraso matxisten aurreko segurtasun-protokoloa eguneratuko dugu.
  Actualizaremos el protocolo de seguridad ante situaciones de agresiones machistas.
- Gizarte eta hezkuntza- baliabideak indartuko ditugu, egoera zaurgarriei arreta eskaintzeko.
  Reforzaremos los recursos socioeducativos para atender situaciones de vulnerabilidad.
- Haur eta gazteei sexualitatea/ drogamenpekotasuna bezalako gaietan laguntza eskainiko diegu garatzen eta hazten diren bitartean.
  Ofreceremos acompañamiento a las/los niños-jóvenes en temas como la sexualidad/ drogodependencia durante su desarrollo y crecimiento.
- Elgoibarko eskola-kirolaren eredu berria abian jarri eta sustatuko dugu.
  Pondremos en marcha y promocionaremos el nuevo modelo de Deporte Escolar de Elgoibar.
- Osasunera bideratutako kirol-ikastaroak antolatu eta bultzatuko ditugu.
  Organizaremos e impulsaremos cursos deportivos orientados a la salud.

- GAUZATUA ETA ETENGABEKO HOBEKUNTZA-PROZESUAN / COMPLETADO Y EN MEJORA CONSTANTE
- ABIAN / EN PROCESO
- AURRETIAZKO URRATSAK / PASOS PREVIOS
- HASTEKO / POR COMENZAR

# 04 Elgoibar inklusiboa eta atsegina
Un Elgoibar inclusivo y amable










## Etxebizitzen garapena bultzatzea, gazteen emantzipazioa errazteko
Impulsar el desarrollo de viviendas para facilitar la emancipación de las y los jóvenes

- Elgoibarko Gazteentzako Emantzipazio Plana garatuko dugu.
  Desarrollaremos el Plan de Emancipación para las y los jóvenes de Elgoibar.
- Egungo anbulategian etxebizitzak garatzeko lan egingo dugu.
  Trabajaremos en el desarrollo de viviendas en el actual ambulatorio.

## Elgoibar bidezkoagoa eta parekideagoa eraikitzea
Construir un Elgoibar más justo e igualitario

- Berdintasunerako planak sortzen eta garatzen jarraituko dugu.
  Seguiremos creando y desarrollando Planes de Igualdad.
- Elgoibarko STEAM emakumeak bultzatuko ditugu.
  Potenciaremos a las mujeres STEAM.
- Udalerriko emakumezko artista sortzaileak eta ekintzaileak ikusaraziko ditugu.
  Visibilizaremos a artistas creadoras y emprendedoras del municipio.
- LGTBI+ pertsonen ongizatearen alde lan egingo dugu.
  Trabajaremos por el bienestar de las personas LGTBI+.
- Prestakuntza-programak ezarriko ditugu eta maskulinitateari buruzko kontzientziazio-kanpainak antolatuko ditugu.
  Implementaremos programas de formación y organizaremos campañas de concienciación sobre la masculinidad.
- Kontziliazioa landuko dugu talentua mantentzeko eta erakartzeko.
  Trabajaremos la conciliación para mantener y atraer talento.









## Pertsona guztientzako segurtasuna eta irisgarritasuna erraztuko duten azpiegiturak sortzea
Crear infraestructuras que faciliten la seguridad y accesibilidad para todas las personas

- Urazandirako igogailu berri bat eraikiko dugu.
  Construiremos un nuevo ascensor a Urazandi.
- Artekalen eskailera mekanikoen ordez igogailu bat eraikiko dugu.
  Sustituiremos las escaleras mecánicas por un ascensor en Artekale.
- King Kongeko zubia eraberrituko dugu.
  Reacondicionaremos el puente del King Kong.
- Eraikin publikoetan herritar guztientzat egokitutako seinaleak jarriko ditugu.
  Incorporaremos en los edificios públicos una señalética adaptada para toda la ciudadanía.
- Komun publikoen sarea hobetuko dugu.
  Mejoraremos la red de aseos públicos.
- Segurtasun-neurri espezifikoak integratuko ditugu espazio publikoetan (argiztapen egokia, ibilbide seguruak, joko-eremu inklusiboak, etab.)
  Integraremos medidas de seguridad específicas en los espacios públicos (iluminación adecuada, rutas seguras, zonas de juego inclusivas etc.).





## Udalerri barruko mugikortasuna hobetzea
Mejorar la movilidad intramunicipal

- Udalbus zerbitzua aztertu eta hobetuko dugu.
  Analizaremos el servicio de autobús urbano.
- Altzola eta herri erdigunearen arteko bidegorria bultzatuko dugu.
  Impulsaremos el bidegorri entre Alzola y el centro de la localidad.
- “Auzotaxi” zerbitzua jarriko dugu martxan.
  Pondremos en marcha el “auzotaxi”.
- San Lorentzorako oinezkoen ibilbidea markatuko dugu.
  Marcaremos el recorrido peatonal a San Lorenzo.









GAUZATUA ETA ETENGABEKO HOBEKUNTZA-PROZESUAN
COMPLETADO Y EN MEJORA CONSTANTE

ABIAN
EN PROCESO

AURRETIAZKO URRATSAK
PASOS PREVIOS

HASTEKO
POR COMENZAR



### Landa-eremuetako bizi-kalitatea hobetzeko ekimenak sustatuko ditugu
Promoveremos iniciativas para mejorar la calidad de vida de los barrios rurales

- Landa-eremuetako ur- hornidura sareak handitzeko proiektuan lan egingo dugu.
  Trabajaremos en el proyecto para ampliar la red de abastecimiento de agua de los barrios rurales.

### ELGOIBAR 0-KM sustatuko dugu
Fomentaremos el KM CERO-ELGOIBAR

- Elgoibarko 0-KM produktuak saltzeko espazio estali iraunkorrak erraztuko ditugu.
  Facilitaremos espacios cubiertos permanentes para la venta de los productos KM CERO-Elgoibar.
- Tokiko ekoizleei lagunduko diegu.
  Apoyaremos a los productores locales.
- Elgoibarko azokak indartuko ditugu.
  Fortaleceremos las ferias de Elgoibar.

## 05 Gureari leialak
Fieles a lo nuestro

### Landa-bideak hobetzea
Mejorar los caminos rurales

- Landa-bideak egokitzeko eta hobetzeko plan bat aktibatuko dugu.
  Activaremos un plan para el acondicionamiento y mejora de los caminos rurales.
- Oinezkoentzako pasealeku eta ibilbide berriak sortuko ditugu eta daudenak egokituko ditugu, Elgoibarko auzo guztietarako irisgarritasuna hobetzeko.
  Crearemos nuevos paseos e itinerarios peatonales y adecuaremos los existentes, mejorando así la accesibilidad a todos los barrios de Elgoibar.







### Elgoibarko ingurumen-plana diseinatzea eta garatzea
Diseñar y desarrollar el plan de medioambiente de Elgoibar

- Elgoibarko trantsizio energetikoaren plana egingo dugu.
  Elaboraremos el plan transición energética Elgoibar.
- EKIOLA proiektu estrategikoa sustatuko dugu.
  Promocionaremos el proyecto estratégico EKIOLA.
- Udaleko energia-plan propio baten alde lan egingo dugu.
  Trabajaremos por un plan energético municipal propio.

### Espazioak birsortzea eta birgaitzea
Regenerar y rehabilitar espacios

- Eulogio Estartako etxebizitzen birgaitze integrala amaituko dugu.
  Concluiremos la rehabilitación integral de las viviendas de Eulogio Estarta.
- Alde zaharreko etxebizitzak birgaitzeko plan bat egingo dugu.
  Llevaremos a cabo un plan de rehabilitación de viviendas de la parte vieja.
- Negozio berrietarako lokalak birgaitzeko laguntzak emango ditugu.
  Posibilitaremos ayudas para rehabilitar locales para nuevos negocios.







## 06 Mundu hobe baten aldeko konpromisoa
Compromiso por un mundo mejor

### GJHen araberako udalerri garbi eta atsegina lortzea
Lograr un municipio limpio y agradable acorde a los ODS

- Industria-aurriek okupatutako espazioak berreskuratzea sustatuko dugu, hiri-paisaia hobetzeko eta berdeguneak zein espazio estaliak sortzeko.
  Fomentaremos la recuperación de espacios ocupados por ruinas industriales para mejorar el paisaje urbano y generar tanto espacios verdes como cubiertos.
- Zuhaiztia Babesteko Ordenantza indarrean jartzeko lan egingo dugu.
  Trabajaremos para la entrada en vigor de la Ordenanza de Protección del Arbolado.
- Informazio-puntuen eta egin daitezkeen hobekuntzen azterketa egingo dugu.
  Realizaremos un análisis de los puntos de información y las posibles mejoras.
- Eraikin publikoetan eguzki-panelen instalakuntza bultzatuko dugu.
  Ampliaremos las instalaciones fotovoltaicas en edificios públicos.

### Aparkaleku kopurua handituko dugu
Incrementaremos el número de aparcamientos

- Kaleak oinezkoentzat hobetuko ditugu, aparkaleku berriak sortuz.
  Mejoraremos la peatonalización de las calles generando nuevos aparcamientos.









ETORKIZUNEKO

# ERREZABAL







ELGOIBAR
UDALA | AYUNTAMIENTO